

## Biak ume – Ikasle aroa

*Euzko Gaztedi*, 1. zk., 1948-06: 6.

BIAK UME – Aiten kaska-soil, osasuntsu ta jator baten ondoan eseri nintzan Caracas'eko cine batean. Argiak itzali ziran bezin laister, nere ezkerrean zegoen jarleku utzean jarri zuen senar-emazte batek lau bat urteko bere semetxoa.

Lenengo argazkiak Japoi'en izandako gudakoak ziran eta ango danbada ta zalapartak entzun zituen bezin laister ekin zion umeak negarrez. Aldamenean neukan aitonaren mar-marra nabaitzen nuen; mukitsu aren negarrak asarre gogorrean jarri zuen nunbait. "Ixildu dedilla!", "Umeak lotara!" zien bere asarre esku-erabiltze ta exerlekuan egon eziñarekin egirian jarriaz. Guda-irudiak amaitu bezin laister aurraren negarrak ere amaitu ziran. Aurrik enuen geigo nabaitu; aitonaren algarra-otsak bai, noizean bein ondoren azaldu ziguten pelikula ikusten ari giñan bitartean.

Amaian, beti gerta oi danez, gizon onak gaiztoa ebain-ebain egiten du; an zeunden oraindi, ordea, arkaitz baten muturrean biak burruka bizian. Batean gizon onak erori bear zuela zirudico, bestean gaiztoak galduko zuela. "Ia, ia... emaiak...! zion aitonak aurreko aulkiari elduta. Alako batean, gizon onak amildu zuen bestea ta... aitonak txaloka ekin zion! Ontan, erdea, argiak piztu ziran eta pixkaren bat lotsatuta noski, gure aiton jatorra laisterka bizian irten zan...

\* \* \*

IKASLE AROA – Englandar izkuntza erakusten duten ikastola batean bildu ziran lenengoz ikasle berriak. Irakasleak, illabete batzuetarako bere ikasle izango ziranen izenak jakin naiean, bakoitzari berea galdetu zion. Oietako batek, zertxo bat zekiela azaldu naiean bere izena englanderaz esan zion, arro-arro: "Peter!". Egun artako ikaskaia azaldu ondoren irakaslea galdera bazuek egiten asi zan.

– Ia ba, Peter, –galdetu zion, gaiztakeriz noski– esaidazu erabilli ditugun itz oiek zer esan nai duten.

Peter'ek etzuen aintzakotzaz ere artu galdera; burua jira ta alako izenekoa zein ote zan billa bezela zebillen bere aldamenean.

– Zu, zu, –zion irakasleak– laugarren aulkian eserita zauden ori..., bai, bai, zu..."

Arrituta bezela, batera ta bestera begira, baña, alare, gure mutilla zutitu zan noizpait.

– Ez al zera ba zu Peter izenekoa?, galdetu zion irakasleak irriparez.

– A, bai... izan ere... bai, bai... ni naiz...

Mutil gizarajoari aztu egin zitzaion bere PETER izen polita! Geroxeago ikasle geienak beren izenak englanderara biurtu zituzten baño Peter, Kepa uts-utsean gelditu zan!